

25E/2018 EBAZPENA, maiatzaren 9koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, irabazi-asmorik gabeko elkarteek 2018an euskara sustatzeko jarduera eta programak egiteko laguntzen deialdiko esleipenak ebazten dituena.

Erreferentzia:	Espdiente kodea: 0011-1407-2018-000000
UNITATE KUDEATZAILEA: Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua Euskara Sustatzeko Atala Tel.: 848 426054 Helbidea: Yanguas y Miranda 27, 1. 31003 Iruña Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es	

ESPEDIENTEA:	
Espediente mota:	Irabazi asmorik gabeko elkarteek euskara sustatzeko jarduera eta programak egiteko laguntzen deialdia

Irabazi-asmorik gabeko elkarteek euskara sustatzeko jarduera eta programak egiteko laguntzen deialdia onetsi zen otsailaren 23an, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko kontseilariaren 5E/2018 Foru Aginduaren bitartez.

Maiatzaren 2an bildu zen Baloraziorako Batzorde Teknikoa jasotako eskariak aztertzeko. 30 eskari jaso dira guztira: 6 baztertu dira, deialdiaren eskakizunekin lotutako hainbat arazoirengatik, eta gainerako 24ak onartu, beste horrenbeste elkartei dagozkienak.

Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendariak txostena aurkeztu du baldintzak betetzen dituzten 24 elkarte horiei esleitu beharreko diru-laguntzak proposatzeko.

Horrenbestez, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen abuztuaren 28ko 129/2015 Foru Dekretuan ezarritakoaren bidez esleitu dizkidaten ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Onuradun hauei beheko taulan ageri diren zenbatekoak esleitzea:

Esp. Zbk.	IFZ	Izena	Aurrekontu-saila	Ekitaldia	Zenbatekoa
0011-1407-2018-000001	F31098627	NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEA SCI	G/B30002/4819/334100	2018	4.899,66
0011-1407-2018-000002	G31724339	HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA	G/B30002/4819/334100	2018	6.532,88
0011-1407-2018-000004	G31246911	DONEZTEBEKO EUSKALTEGIA KULTURA ELKARTEA	G/B30002/4819/334100	2018	3.860,34
0011-1407-2018-000006	G31653017	KARRIKALUZE ELKARTEA	G/B30002/4819/334100	2018	37.861,01
0011-1407-2018-000007	G31572654	KARRIKIRI ELKARTEA	G/B30002/4819/334100	2018	39.939,65
0011-1407-2018-000008	G31824675	FEDERACION TOPAGUNEA EUSKARA ELKARTEEN FEDERA ZIOA	G/B30002/4819/334100	2018	28.210,16
0011-1407-2018-000009	F95222816	EUSKARAZ KOOP E	G/B30002/4819/334100	2018	17.756,60
0011-1407-2018-000010	G20620217	ASOC EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA	G/B30002/4819/334100	2018	8.611,52
0011-1407-2018-000011	G71038855	ASOCIACION PLATAFORMA CIVICA CIUDADANA	G/B30002/4819/334100	2018	4.000,00
0011-1407-2018-000013	G31698624	EUSKOKULTUR FUNDAZIOA	G/B30002/4819/334100	2018	4.157,29

			00		
0011-1407-2018-000014	G31831050	FUNDACION DINDAIA-DINDAIA FUNDAZIOA	G/B30002/4819/3341 00	2018	16.019,35
0011-1407-2018-000015	G31921125	GAREAN ELKARTEA	G/B30002/4819/3341 00	2018	8.035,00
0011-1407-2018-000016	G71273411	ASOCIACION NATURESKOLA	G/B30002/4819/3341 00	2018	930,00
0011-1407-2018-000017	G31722705	ASOCIACION EUSKALDUNON BILTOKI	G/B30002/4819/3341 00	2018	11.865,00
0011-1407-2018-000018	G71066591	ASOCIACION ELUTSEDER	G/B30002/4819/3341 00	2018	2.962,51
0011-1407-2018-000020	G31513443	ASOCIACION GRUPO IRURTZUNGO AIZPEA	G/B30002/4819/3341 00	2018	4.965,76
0011-1407-2018-000021	G71092381	ASOCIACION NUEVA BABEL	G/B30002/4819/3341 00	2018	6.235,93
0011-1407-2018-000022	G31264153	NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA	G/B30002/4819/3341 00	2018	31.582,36
0011-1407-2018-000023	G31174667	ASOCIACION SOCIEDAD MAITEA GURE TXOKO	G/B30002/4819/3341 00	2018	520,00
0011-1407-2018-000025	G31181100	ASOCIACION BETERRI	G/B30002/4819/3341 00	2018	1.472,00
0011-1407-2018-000027	G71335848	NAFARROAKO KARTA SOZIALAREN PLATAFORMA	G/B30002/4819/3341 00	2018	5.938,98
0011-1407-2018-000028	G71214266	TUTERA KANTUZ	G/B30002/4819/3341 00	2018	1.860,00
0011-1407-2018-000029	G71319909	TUTERAN JAI	G/B30002/4819/3341 00	2018	1.304,00
0011-1407-2018-000030	G71226542	ASOCIACION ANDOSILLA HERRIKO GAZTEAK	G/B30002/4819/3341 00	2018	480,00

2. Honako eskari hauek ukatzea:

Esp. Zbk.	IFZ	Izena
0011-1407-2018-000012	G31523715	ASOCIACION DE DAÑO CEREBRAL DE NAVARRA
0011-1407-2018-000019	G31647431	ASOCIACION NAVARRA PARA TRATAMIENTO Y ES
0011-1407-2018-000026	G95870523	EUSKARABENTURA ELKARTEA

3. Ebazpen hau jakinaraziko zaio onuradun bakoitzari, kopurua eta emandako diru-laguntzari dagozkion gainontzeko xehetasunak zehaztuko dituen eranskin batekin. Laguntza ukatzen denean, arrazoiak emanen dira.

4. 5E/2018 Foru Aginduko 12. oinarriak xedatzen duen bezala, lehenengo ordainketa partziala bideratu nahi duten elkarteek maiatzaren 25era arteko epea dute egindako jarduerak eta gastuen justifikazioa aurkezteko.

Elkarte onuradunek agiri bidez frogatu beharko dute diru-laguntzaren xede diren jarduerak edo programak gauzatu dituztela, aurkeztutako proiektu teknikoan lortutako puntuazioarekin bat, dagozkion frogagiriak aurkeztuz (fakturak edo nominak eta haien ordainagiriak).

Pertsona edo entitate onuradunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte zehazki Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuan:

- III. eranskin gisa argitaratutako justifikazio teknikorako dokumentua.
- IV., V., VI. eta VII. eranskinak justifikazio ekonomikorako; kalkulu orritan.
- Egindako programen edo jardueren gastuaren frogagiriak, jatorrizko fakturak edo kopia soilak.

Bete beharreko dokumentu horiek guztiak eskuragarri daude Nafarroako Gobernuaren webgune instituzionaleko helbide honetan:

http://www.navarra.es/home_es/Servicios/ficha/7257/Ayudas-para-las-actividades-de-fomento-del-uso-del-euskera-en-Navarra-2018

5. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtoa jar daiteke, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean. Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtoa jartzen ahal dute jurisdikzio-ordena eskudunari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita. Hau guztia Nafarroako Gobernuaren aitzinean aldez aurreko errekerimendua egiten ahal dela ukatu gabe, Administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan finkaturiko modu eta epeetan.

Iruñean, 2018-05-09 .

EUSKARABIDEA - EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI
KUDEATZAILEA

Mikel Arregi Pérez |